

Polizi operazioa Nafarroan

Bost lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak Sakanan, Baltasar Garzonen aginduz

Madrilera eraman zituzten atzo, kale istiluetan parte hartzeaz akusatuta

Erredakzioa / Iruñea

Guardia Zibilak bost lagun atxilotu zituen atzo Nafarroako Sakanan, Baltasar Garzon Entzutegi Nazionalako epaileak agindutako operazio

batean. Arbizun, Francisco Jabier Razkin Flores HBko zinegotzia, Fernando eta Jose Luis Imaz anaiak eta Mikel Gartzandia atxilotu zituzten, eta Lizarragabengoa Manuel Garmendia. Atxilotetak eta miaketak

egiteko, Guardia Zibilak hedatze ikusgarria egin zuen atxilotuen etxeen inguruan. Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkariaren arabera, Sakanan izandako bide mozketekin lotuta daude atxilotetak.

ATXILOKETA guztiak atzo goizaldean egin zituen Guardia Zibilak, goizaldeko ordu bietatik lau t' erdiak bitartean. Polizi operazioa Arbizun (Nafarroa) hasi zen Mikel Aingeru kalean. Lekukoen arabera, guardi zibil ugari zabaldu zen auzo osoan, batzuk oinez eta beste batzuk furgoi eta kotxeetan. Auzo horretan hiru lagun atxilotu zituzten: Mikel Gartzandia (26 urte), Fernando Imaz (29 urte) eta Francisco Jabier Razkin Flores HBko zinegotzia (40 urte). Arbizuko Akerruntza auzoan, Jose Luis Imaz (26 urte) atxilotu zuten eta Etxarri-Aranazko Lizarrabengoa auzoan J. Manuel Garmendia (32).

Guardia Zibilak ohar baten bidez jakinarazi zuen atxiloteta hauek Sakanan izandako sabotaje batzuekin lotuta daudela eta *Y talde* bat desegin duela. Sakanan azkenaldian izandako kale istilu bakarrak Sakanako autobidearen bi bide mozketak izan dira, Paris eta Gipuzkoako atxiloteten ondorengo protestaldietan. Izan ere, Baltasar Garzonek bideratutako atxilotze eta miatzeko aginduetan gertaera horiek bakarrik aipatzen dira. Martxoaren 9an, kamioi bati harriak eta koktelak bota izana eta hurrengo egunean barrikada bat egin eta kaminiotik bat harrikatu, geldiarazi eta gil-



Arbizuko zenbait herritar udaletxera sartzen, herri batzarra egin baitzuten atzo.

tzak kendu izana egotzi die epaileak aipatutako autoan. Ekintza horiek terrorismo delitutzat jo ditu. Guardia Zibilak Iruñeko komandantziara eraman zituen bost lagunak eta handik Madrilgo komandantziara.

Operazioak alarma sortu zuen Arbizuko bizilagunen artean, alkateari abisu eman zioten. Patxi Leitza alkatea (EA) eta Alberto Urkia zinegotzia (HB) kalera irten eta goardia zibilengana jo zuten

bizilagunen egoeraren berri jakin nahian.

Guardia Zibila atxilotze eta miatzeko aginduekin sartu zen etxe guztietan, Imazen kasuan izan ezik. Kasu honetan, anaia Francisco atxilotu ondoren, hirugarren anaiari agindu zioten lehenaren etxera laguntzeko ataria zein zen ez zekitelako. Jose Luis atea irekitzean atxilotu zuten, etxean sartzeko agindurik ez baitzeukaten. Mikel Gartzandiaren etxean sartu zire-

nean hasiera batean honen gurasoak gela batean itxi zituzten eta gero lekuko gisa erabili. Miaketan Jarrairen bi hautsontzi, diskete zaharrak, agenda bat, liburu bat eta mendiko bi labana atzeman zituzten. Garmendiaren kasuan ordu betez miatu zuten etxea eta eramaterakotan amak musu bat eman nahi izan zioenean guardia zibilak eragozten saiatu ziren tentsio une bat sortuz, familiak salatu duenez.

HBren ustetan, Gobernuaren probokazio estrategiak aitzina jarraitzen du

Erredakzioa / Iruñea

HB-KO foru parlamentario eta mahaikide Shanti Kirogak atzo komunikatu batean adierazi zuenez, «Gobernuaren probokazio estrategiak aitzina darrai atxiloteta berriekin». Bere ustez, espainiar eta frantziar estatuek baliabide guztiak erabiliko dituzte Lizarra-Garazi akordioarekin hasi prozesu politiko bertan behera uzteko. «Gerestaren heriotza, gure iritziz, horren froga da. Testuinguru berean daude egunotako zein gaurko atxilotetak», erran zuen.

HBk arbitrariotzat jo ditu Sakanako atxilotetak. «Denak balio du euren dako, herrien okupazioa eta ordu ttipietan etxeetan sartzea autoa bezperako eguerdian sinaturik egon arren». Kirogaren aburuz, Gobernuaren probokazio estrategiaren lehentasunezko jomuga da HB. Hori baieztatzeko HBren aurkako ekintzak zerrendatu zituen: bi zinegotziren atxiloteta, Nazioartea Alorreko hainbat kideren atxiloteta eta Donostiako egoitzaren miaketa. Azkenik, mobilizazioetan parte hartzeko deia egin zuen Kirogak.

Jarraik dio Estatuaren apustua gerra dela eta erantzun bateratu eskatzen duela

Erredakzioa / Iruñea

JARRAIK atzo igorritako prentsa ohar batean adierazi zuenez, «Estatuaren apostua gerra da, eraikuntza nazionalari indarrez eta determinazioz ekin diogulako». Jarraik azpimarratu nahi izan du operazio poliziala oraindik irekirik dagoela eta Jarrairen kontrako ekintza ere iragarria dagoela. «Hori da beraien estrategia, beldurrraren estrategia», adierazi dute. Jarraik deialdia egin du atxilotetei erantzuteko. Bestetik, heldu den ostiralean kontzentrazioak eginen dira ikastetxeetan «Utzi pakean euskal gazteria, Euskal Herria defenditu eta eraiki» lemapean.

Ansuategik informazioa ukatu zion Arbizuko alkateari

ATXILOTUEN senideak eta Arbizuko alkate Patxi Leitza (EA) Iruñera joan ziren atzo goizean bost sakandarraren egoeraren berri jakin ahal izateko. Senideek Guardia Zibilaren Komandantziara jo zuten, baina han ez zieten batere informazio eman. Arbizuko alkatea Gobernu Or-

dezkaritzara abiatu zen zinegotzi batekin batera eta Javier Ansuategirekin hitz egitea erdietsi zuen. Honek baieztatu zion atxilotuak Madrilera zirela. «Hamabost minutuz egon ginen hizketan», adierazi zuen Patxi Leitza. «Nik galdetzen nion ea zergatik atxilotu zituzten.

Ansuategi bere horretan mantendu zen eta ez zidan informazio handirik eman. Operazio poliziala zela, martxoaren 9 eta 10an gertaturikoak egozten zitzaizela eta kitto. Ondoren zera esan zidan: 'Informazio gehiago nahi izanez gero deitu Amnistiaren Aldeko Batzordei, eurek eman

baitute nik eman dizudan informazioa eta gehiago'. Nik erantzun nion ez zitzaizala axola AABek esan zezaketen, momentu horretan berak, Ansuategi, erantzule politikoa bezala eman ziezaketen informazioa nahi nuela».

Arbizuko alkateak Ansuategiri komenta-

tu zion ere azken bi astetan Guardia Zibileko bi *land rover* pasiatu direla egunero herritik. «Esan diot horrelako gauzek egoera tentsatu egiten dutela eta eskatu diot bisitaldi horiekin bukatzeko. Berak ez du prometituko dituela, baina behintzat esan du begiratu duela».